

Elebidun goiztiarren hiztegia:
euskaldun elebakar eta
euskara-gaztelania elebidun
goiztiarren arteko erkaketa
CDIren bidez

Alaine Barruetaña Erdaide

Euskal Ikasketetako Gradua

2014/2015 ikasturtea

Zuzendaria: Mari Jose Ezeizabarrena Segurola

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak

2015eko uztaila

Elebidun goiztiarren hiztegia: euskaldun elebakar eta euskara-gaztelania elebidun goiztiarren arteko erkaketa CDIren bidez

Laburpena: Lan hau elebidun goiztiarren hiztegiari buruzkoa da. Bertan 16-35 hilabete arteko 5 ume elebakar eta 6 elebidunen datuak deskribatu eta aztertu dira. Lanean *Communicative Development Inventories* (CDI) tresnaren erabileran trebatu nahi da eta gaira hurbilpen bat egin.

Haur elebidunak aztertzeko datuak bi hizkuntzetan jaso dira euskaldun elebakar eta elebidunen artean alderik dagoen ikusiz. Horretarako, CDIren euskarazko eta gaztelaniazko bertsioak erabili dira, galdetegi batzuk, elebakarrenak, euskaraz bakarrik jaso badira ere. Beste batzuk, elebidunenak, euskaraz eta gaztelaniaz. Batez ere, lexikoan zentratu gara, baina gramatikaren atal bi ere erabili dira.

Lan hau hiru hipotesitan oinarritu da: 1) hizkuntza bateko inputak eragina du hizkuntza horren ekoizpenean (Pearson et al., 1997: 51). 2) Elebidunen bi hizkuntzetako hitzak edota kontzeptuak batera hartuz, umearen hiztegiak, kantitatean, bat egiten du hizkuntza bereko elebakarrenarekin (Pearson et al., 1997). 3) Umeek kontzeptu berarentzat bi hizkuntzetan hitz baliokide bana dute, ondorioz, bi hizkuntzak bereiz dituzte (Junker eta Stockman, 2002, apud Perez-Pereira 2008: 42).

Aztergai ziren haur euskaldunen hiztegiak aurreikuspen nagusiak hauek dira: 1) input gehiago duen hizkuntzako ekoizpena handiagoa izango da. 2) Elebakarrak elebidunak baino pertzentil altuagoan kokatuko dira. 3) Bi hizkuntzetako hitzak edo kontzeptuak batera hartuz, elebidunek elebakarrek baino emaitza altuagoak lortuko dituzte. 4) Kontzeptu batentzako hitz bana izango dute hizkuntza banatan.

Ateratako emaitzak ondorengoak dira: 1) 16-20 zein 29-30 hilabeteko umeen multzoan, aztertutako elebidunak euskaraz gaztelaniaz baino pertzentil altuagoan daude.

2) Input gehiago jasotzen duten hizkuntzako ekoizpena handiagoa da.

3) 16-20 hilabeteko ume elebakarrak elebidunak baino pertzentil baxuagoan daude, bataz bestekoak 80 eta 85 pertzentiletan daudelarik. 29-30 arteko elebakarra (pertz. 45) ere, multzo bereko elebidunak (pertz. 55) baino pertzentil baxuagoan dago.

4) Hitz kopuruari dagokionez, ume elebidunek elebakarrek baino emaitza altuagoak dituzte. Hitzetan askoz altuagoa da elebidunen ekoizpena elebakarrena baino. Baita kontzeptuetan ere.

5) Ume guztiek izan dituzte kontzeptu batzuentzako hitz bana hizkuntza banatan.

6) Gehien erabiltzen dituzten hitzak *hotsak* eta *pertsanak* dira; txikienek ere erabiltzen dituzte.

7) Adizkietan emaitza baxuak lortu dira, txikienetan 0 da emaitza ohikoena. Nagusienetan, berriz, %10,81 da altuena.

8) Esaldien konplexutasuna txikia izan da, baina, nagusienetan emaitza nahiko altuak dituzte.

Lan honetako ondorio nagusia da elebidunak aztertu ahal izateko, bi hizkuntzak batera hartu behar direla eta elebakarrekin alderatuta, hiztegi zabalagoa dutela. Gainera, inputa eta ekoizpenaren artean harreman zuzena dago, nahiz eta gure azterketan salbuespenen bat agertu zaigun. Aurreikuspenak orokorrean bete egin dira, nahiz eta 1 eta 2k salbuespenak izan dituzten. Gainera, hipotesien aldeko datuak ere aurkitu dira.

Aurkibidea

0. Sarrera	4
1. Zer dira KGNZ eta IDHC tresnak?	5
2. Lanerako hipotesiak	6
3. Datu-bilketa	7
4. Partehartzaileak	8
4.1. Berriemaileak	8
4.2. Haurren perfila	9
4.3. Egoera soziolinguistikoa	11
4.3.1. Gernika-Lumon	12
4.3.2. Txorierrin	12
5. Datuen azterketarako	13
6. Aurreikuspenak	14
7. Lexiko mailako emaitzak	15
7.1. Kontzeptuak eta hitzak	15
7.2. Inputa eta ekoizpena	18
7.3. Gehien erabiltzen dituzten hitzak	19
7.4. Pertzentilak	21
8. Gramatika mailako emaitzak	24
8.1. Pertzentilak	24
8.1.1. Adizkiak/Verbos difíciles	25
8.1.2. Esaldien konplexutasuna/Complejidad morfosintáctica	26
9. KGNZren mugak	27
10. Ondorioak eta azken hitzak	28
11. Erreferentzia bibliografikoak	31
12. Eranskinak	32

Elebidun goiztiarren hiztegia: euskaldun elebakar eta euskara-gaztelania elebidun goiztiarren arteko erkaketa CDIren bidez*

0. Sarrera

Lan honetan aztergai nagusia 16-35 hilabete arteko 5 haur elebakar eta 6 elebidunen hiztegia da, haurrak bi hizkuntzatan esaten dituen hitzak eta ezagutzen dituen kontzeptuak aztertuz. Horrela, *Communicative Development Inventories* (CDI) tresnaren erabileran trebatu nahi da eta gaira lehen hurbilpen bat egin. Hau da, CDI erabiliz haur elebidunen hizkuntza garapena nolakoa den ikusi, elebakarrenarekin kontrastean, gainetik bada ere.

Etxetik elebidunak –euskara-gaztelania– diren eta elebakarrak –euskara– diren haurren arteko konparaketa bat egitea da helburua. Bi taldeetako haurren artean alderik dagoen ikustea, alegia.

Haur elebakarrak euskaraz dira elebakar eta hizkuntza hori aztertzeko euskarazko *MacArthur-Bates Komunikazio Garapena Neurtzeko Zerrenda* (aurrerantzean KGNZ) erabili da. Elebidunen kasuan, aldiz, euskara eta gaztelania dira beraien bi hizkuntzak, eta beraz, aurreko euskarazko bertsioaz gain, gaztelaniazko *Inventario del Desarrollo de Habilidades Comunicativas* (aurrerantzean IDHC) tresna ere erabili da hauen gaztelaniazko ekoizpena aztertzeko. Bi tresna hauek erabiliz haur horien lexikoa aztertu da batez ere, baina baita gramatika apur bat ere.

Lan hau egiteko orduan, tresna hau baliatuta garatu diren orain arteko ikerketetako batzuk hartuko dira abiapuntutzat, Pérez-Pereiraren (2008) galiziera-gaztelania elebidunei buruzkoa edota Barreña et al. (2008) eta López-Ornat et al.-en (2005) eskuliburuak, esaterako.

* Nire eskerrik beroenak eman nahi nizkieke, aldezturik, lan hau aurrera eramatea posible egin duten ikastetxeetako zuzendari, irakasle eta, batez ere, gurasoei; haiek gabe ezin izango bainukeen lan hau egin. Baina bereziki eskertu nahiko nuke ikaskide eta lagun dudana Alazne Arriortua, berak lagundu baitzidan eskolaz eskola galdetegiak banatzen eta irakasleekin harremanetan jartzen eta berari esker lortu baititut galdetegi gehienak.

Lan honen egitura ondorengo izango da: lehenengo eta behin 1) KGNZ eta IDHC tresnak zer diren eta hauen erabilera azalduko da labor. Ondoren, 2) ikerlana hasi aurreko hipotesiak agertuko dira, beste lan batzuetan oinarriturik. Hurrengo puntuan, 3) datuen bilketarako jarraitu den prozedura azalduko da. Gero, 4) galdetegietan jasotako datuetatik atera ditudan emaitzak daude, lexikoari buruzkoak. Horren ondotik, 5) gramatikaz jardungo dugu laborri, hurrek bertan ateratako emaitzak aztertuz, eta bukatze aldera, 6) KGNZ galdetegiari aurkitutako mugetaz hitz egingo da. Azken puntuan 7) ondorioak aterako dira.

1. Zer dira KGNZ eta IDHC tresnak?

1990etik hasita Estatu Batuetan *Communicative Development Inventories* (CDI) izeneko tresna garatu zuen ikerlari multzo batek (Fenson, Dale, Reznick, Thal, Bates, Hartung, Pethick eta Reilly) MacArthur Fundazioaren baitan eta ordutik munduko hainbat hizkuntzatarara, 63 inguru, egokitua izan da. Euskaraz 2005. urtean argitaratu zen KGNZ deritzona eta gaztelaniazko bertsioa, IDHC, osteria, 2003an.

Tresna honen helburu nagusia haurren hizkuntza- eta komunikazio-garapen goiztiarra neurtzea da; horregatik, gurasoen iritzietan oinarriturik 8-30 hilabete arteko haurren garapen linguistiko eta komunikatiboaren berri jasotzen da galdetegi biren bidez. Horretaz gain, lanean egindako hipotesiak testatzeko helburuarekin ere erabiliko da. Halaber, tresna honek hizkuntza bakoitzaren gaineko garapen linguistiko eta komunikatiboaren profila ematen digun heinean, hizkuntza arazoak zein atzerapen-orokorra hainbat arinen antzemateko ere balio dezake.

KGNZ edota IDHC bi galdetegiak osatzen dituzte: Lehena, *Hitzak eta keinuak* edo *Primeras palabras y gestos* (KGNZ-1/IDHC-1), 8-15 hilabete arteko haurren gurasoek betetzekoa da eta bigarrena, *Hitzak eta esaldiak* edo *Palabras y oraciones* (KGNZ-2/IDHC-2) 16-30 hilabete arteko haurren gurasoek betetzekoa. Lan honetan bigarren galdetegiak dira erabiliko direnak, adin horretako haurrak baitira aztertu nahi direnak. Halaber, KGNZ eta IDHC izenak erabiliko dira galdetegiak izendatzeko.

Euskarazko bigarren KGNZ galdetegiaren atalak ondorengo hauek dira: lehenengo atalaren barruan haurrak esaten dituen hitzak ezagutu nahi dira eta horretarako A) hitzen

zerrenda bat dago lehenbizi, eta B) haurrak hitzak nola erabiltzen dituen gero. Bigarren atalaren barruan, aldiz, esaldiak eta gramatika neurtzen dira: A) hitz amaierak, B) adizkiak, C) haurra hitzak lotzen hasita ote dagoen eta hala izatekotan adibide batzuk eta D) esaldien konplexutasuna. Azkenik, haurrari eta bere inguruari buruzko galdera batzuk daude, hizkuntza, osasuna eta abarri buruz.

Gaztelaniazko bigarren IDHCren atalak, berriz, ondokoak dira: lehenengo atalaren barruan beste lau azpiatal daude: I) producción temprana, II) desarrollo del vocabulario, III) vocabulario eta IV) usos del lenguaje. Bigarren atalak ere baditu beste bost azpiatal: I) terminaciones de palabras, II) verbos difíciles, III) palabras sorprendentes, IV) combinación de palabras/ejemplos eta V) complejidad morfosintáctica. Amaieran, euskarazkoak bezala, haurrari eta bere inguruari buruzko galderak dakartza.

Azterketa honetan, batez ere, haur elebidun eta elebakarren lexikoa aztertu nahi den heinean, lehenengo atalaren A zatiko hitz multzoak erabiliko dira euskaraz eta lehenengo ataleko III zatikoak gaztelaniaz, hiztegiari dagozkien bi multzoak, hain zuzen. Horietaz gain, bigarren parteko B) *Adizkiak*/II) *Verbos Dificiles* eta D) *Esaldien konplexutasuna*/V) *Complejidad morfosintáctica*. atalak ere erabiliko dira 8. puntuan.

Hala eta guztiz ere, kontuan hartu beharrekoa da, haur elebidunak ditugula guk aztergai. Orain arteko ikerketetan, O'Toole-k (2013: 10) esaten digun bezala, elebidunak aztertu izan direnean, ikerlan honetan egingo den bezala, "hizkuntza bakoitzeko elebakarrentzako garatutako galdetegiak erabili izan dira, bi galdetegiak bereiz betez, eta gero, haurraren hiztegi orokorra zehaztuz. Halere, *elebiduna izatea ez da bi hizkuntzetan elebakarra izatea*. Gainera, egokitzapen gehienek aztergai duten kultura eta hizkuntzako idiosinkrasiak dituzte. Horrek esan nahi du ezin dela, bi hizkuntzak bereiz aztertuz, haurraren garapenaren argazki bat zehaztasunez egin" (itzulpena eta letra etzana neureak dira). Autoreak, lan horretan, aurkezten duen bertsioa Irlandera-Ingelesa CDI elebiduna da.

2. Lanerako hipotesiak

Lan honi ekin aurretik, beste hizkuntzetan, elebakar eta elebidunekin, egindako lanetako batzuei erreparatuz eta haiek atera dituzten ondorioei begira, honakoak dira gure azterketarako hipotesiak:

1) Pearson et al. (1997: 51) lanean aipatzen den bezala, hizkuntza bateko ekoizpenean eragina du haur horrek hizkuntza hori hitz egiten dion pertsonarekin pasatzen duen denborak. Zenbat eta denbora gehiago pasatu hizkuntza bat entzuten, hau da, haurrari zenbat eta gehiago zuzendu hizkuntza batean, orduan eta input gehiago jasoko du haurrak eta ondorioz ekoizpena ere altuagoa izango litzateke.

2) Haur elebidunen hizkuntza bakarreko hitzak hizkuntza bereko elebakarrenarekin alderatuz gero, elebidunen hiztegia txikiagoa da, baina hainbat ikerlanek (adbz., Pearson et al., 1997; Pearson et al., 1993, apud Perez-Pereira 2008: 40, 57; Junker eta Stockman, 2002, apud Perez-Pereira 2008: 42, 57) erakutsi duten moduan, elebidunen bi hizkuntzetako hitzak edota kontzeptuak hartzen badira kontuan, umearen hiztegiak, kantitatean, bat egiten du hizkuntza bereko elebakarrenarekin.

3) Junker eta Stockmanen lanean oinarrituta, Perez-Pereirak (2008: 42) dio umeek bi hizkuntzak bereiz dituztela kontzeptu berarentzat bi hizkuntzetan hitz baliokide bana baitzuten. Hori abiapuntu harturik, pentsa genezake guk aztergai ditugun haurrek ere bi hitz izango badituzte bi hizkuntzetan, bi hizkuntzak bereiz dituztela.

3. Datu-bilketa

Datuak jasotzeko Bizkaiko bi eskualdeko, Busturialdea eta Txorierri, bi herriko bi eskola erabili ziren. Beste edozein eskola bezain aukera onak ziren eta ez dago arrazoi berezirik bi horiek aukeratzeko. Herri biak beren eskualdearen erdialdean kokatzen dira. Hasieran eskola bakarreko umeak hartu nahi ziren, baina lehen eskolan bi galdetegi baino ez nituenez jaso beste eskola batzuetara jo nuen, oraingoan, beste eskualde batekoak. Azkenean, bigarren eskualde horretako eskola bakar bateko datuak bildu eta aztertu dira lan honetan.

Allende Salazar Gernika-Lumoko eskola handiena da, publikoa, eta bertara inguruko herrietako haurrak ere joaten dira.

Zamudio LHiren kasua ere antzekoa da. Eskola honetara ere inguruko herrietako haurrak joaten dira.

Beraz, datu bilketa egiteko ondoko prozedura jarraitu zen: Lehenengo eta behin Gernika-Lumoko Allende Salazar ikastetxearekin harremanetan jarri nintzen. Ondoren, bi hizkuntzetako (euskara eta gaztelania) galdetegiak eraman zitzaizkien gurasoen artean banatzeko eta handik hilabetera, galdetegien bila joan nintzen lanean hasteko.

Eskola hartan 28 galdetegi banatu ziren, 14 euskaraz eta beste horrenbeste gazteleraz, bakoitzetik bana guraso bakoitzari. Baina hiru bakarrik jaso nituen bueltan: guraso batzuek bi hizkuntzetan, euskaraz eta gaztelaniaz itzuli zituzten. Beste batzuek, euskarazkoa bakarrik. Hala ere, haur elebidunak 35 hilabete zeuzkan galdetegiak bete zirenean.

Horren aurrean, beste eskola eta haurtzaindegi batzuetara jotzea erabaki nuen. Azkenean, Zamudio LHikoen berri baino ez nuen jaso bueltan. Han 14 galdetegi banatu ziren (7 hizkuntza bakoitzean) laguntzeko prest zeuden gurasoen artean eta guztiak jaso nituen bueltan, 3 euskaraz bakarrik eta 8 euskaraz eta gaztelaniaz (4 umeren datuak).

Horietaz gain, galdetegi bi ez ziren eskolaren bidez lortu, baizik eta jendearekin hitz eginez. Bata bi hizkuntzetan, eta bestea, euskaraz bakarrik.

Guztira 11 umeren datuek osatzen dute gure lagina: 5 galdetegi euskaraz bakarrik eta 6 euskaraz eta gaztelaniaz.

4. Partehartzaileak

Lan hau burutu ahal izateko umeak aztertu dira, baina hauen datuak beren gurasoen bitartez jaso dira, horregatik bi azpiatal bereiziko ditugu zati honetan: berriemaileak (gurasoak) eta umeak.

4.1. Berriemaileak

Esan dugu gurasoen iritzietan oinarritzen den tresna dugula guk erabilitakoa eta kontuan hartu behar da jasotako datuak beraien iragazkia pasata heldu zaizkigula.

Euskarazko galdetegiak bakarrik bete dutenak, umeen amek bete dituzte (J16¹, Ig I16, La16, Ig II18, P30). Euskara eta gaztelaniazkoak, biak bete dituztenak, ostera, hiru haurren galdetegi biak bete dituzte amek (D17, H18, Io29); bi umerenak guraso biek batera bete dituzte galdetegi biak (A20, Li30) eta batena euskarazkoa amak eta gaztelaniazkoa aitak (U35).

4.2. Haurren profila

Azterketa honetarako erabili diren datuak 16-30 hilabete arteko haurrenak izan dira. Horretarako, umeak bi irizpideren arabera sailkatu dira: adina eta elebidun/elebakartasuna. Elebakarrak euskaldunak dira eta elebidunen bi hizkuntzak euskara eta gaztelania. Guzti hau 1. taulan ageri da.

Lan honetan ez da neska/mutil bereizketa kontuan hartuko, ezta gehiago aipatuko ere, taulan agertzen den arren, zeren eta hemengo 11 hurreko lagina oso txikia da eta gainera, Barreña et al. (2008) eta López-Ornat et al. (2005) lanetan, orokorrean bi sexuen arteko desberdintasunak egon badauden arren, ez dira oso handiak.

1. taulan, lehen zutabeetan umeak agertzen dira. Bigarrenetan, galdetegiak bete zirenean ume horiek zuten adina, hilabetetan emana. Azken zutabeetan, aldiz, haur horiek hizkuntza bakoitzarekin duten harremana ageri da, zenbat denbora entzuten duten hizkuntza bakoitza, ehunekotan emana, beste hizkuntzarekiko proportzioan.

¹Gure lan honetan zehar haurrak izendatzeko kode bat erabili da. Zenbakiak galdetegiak bete zirenean haurrek zuten adina adierazten dute hilabetetan. Ig (+zenbaki erromatarra) bezala izendatu direnak *Izengabeak* dira, izenik gabe eman dizkidate gurasoek.

1. taula: Haurren perfila					
		Zenbat hilabete?	Sexua	Zenbat entzuten du hizkuntza bakoitza astean?	
				Euskara	Gaztelania
Euskaldun elebakarrak	J	16	Mutila	% 100	0
	Ig I	16	Mutila	%56,25	%43,75
	La	16	Neska	% 100	0
	Ig II	18	Mutila	% 100	0
	P	30	Mutila	%76,49	%23,51
Euskara-gaztelania elebidunak	D	17	Neska	%50	%50
	H	18	Neska	%70,59	%29,41
	A	20	Mutila	%74,26	%25,74
	Io	29	Neska	%71,17	%28,83
	Li	30	Mutila	% 100	0
	U	35	Mutila	%47,17	%52,83

Galdetegiak 16-30 hilabete arteko haurren gurasoek betetzekoak dira, baina irakurleak ikus dezakeenez, taula horretan U35 izendatu dugun haurrak 35 hilabete ditu. Hau hasierako konparaketetan alde batera utziko da eta, gero, aparte aztertuko.

Haurren sailkapenerako irizpideetako bat adina izan da eta gure laginaren txikitasuna eta heterogeneotasuna kontuan izanik, bi multzo nagusi egitea erabaki da: bata 16-20 hilabete artekoena eta 29-30 artekoena bestea; horrela lehen multzoan daude, alde batetik, J16, Ig I16, La16 eta Ig II18 elebakarretan eta D17, H18 eta A20 elebidunetan, eta bigarren multzoan, bestalde, P30 elebakarretan eta Io29 eta Li30 elebidunetan. Esan bezala, U35 alde batera utziko dugu, hasieran.

Aurreko taulan ikus daitekeenez, Ig I16 eta P30 euskaldun elebakar bezala sailkatu dira nahiz eta gaztelera entzun euren inguruan. Kasu bietan aita da gaztelera hitz egiten diena, eta kasu bietan esaten dute nahiz eta gehienbat gaztelera hitz egiten egin, euskara apur bat ere egiten diela aitak. Hala ere, galdetegiak betetzerakoan batek ere ez du gaztelaniazkoa bete, Ig I16 galdetegia bete duenak, gainera, “ez du gaztelaniaz hitz egiten” adierazten du, “euskaraz bakarrik” (ikus 1 eta 2. eranskinak). Beraz, gurasoen irizpideetan oinarriturik, bi haurrok elebakarren artean sartu dira.

Li30en kasua kontrakoa da: haurrak bere inguru hurbilean euskara bakarrik jaso du, baina hala ere, gaztelaniaz zerbait badaki, gurasoek gaztelaniazko galdetegia ere bete dute, nahiz eta neurri txikiagoan. Beraz, ume hau elebiduntzat jo da.

La16 guraso euskaldunen alaba da eta guraso biek egiten die euskaraz. Hala ere, haur hori gero eta arruntagoa zaigun egoeran aurkitzen da, aita euskaldun berria da. Fitxan adierazten den bezala, 2012an hasi zen euskara ikasten eta ez da oso ondo moldatzen, baina hala eta guztiz ere, hizkuntza horretan mintzo zaio alabari.

D17, azkenik, elebidun orekatua dugu, bi hizkuntzetan dauka input berdina.

Hala ere, 7.3. ataleko datuak azaldu ahal izateko testuinguru soziolinguistikoa ere aipagarria dela iruditzen zait.

4.3. Egoera soziolinguistikoa

Gurasoei galdetegiaren amaieran haurraren inguru linguistikoari buruz galdetzen zaie: zenbat denbora pasatzen duen pertsona bakoitzarekin eta zein hizkuntzatan hitz egiten dion berorrek. Horrela, umeak hizkuntza bakoitza, gutxi gora-behera, astean zenbat orduz entzuten duen jakin nahi da. Baina, ez da errealista gurasoek ematen duten irudia. Askotan asteak dauzkan baino ordu gehiago adierazten dituzte. Baina, normalena izaten da haurraren inguru hurbilean bakarrik adieraztea: gurasoak eta ez asko gehiago. Hala ere, haurrek euskara nagusiki entzun arren, gaztelera ere beti egongo da presente beraien bizitzan, jaiotzen diren unetik, inguru batzuetan gehiago, beste batzuetan gutxiago. Ume hauek etorkizunean elebidunak izango dira. Horregatik iruditzen zait oso garrantzitsua egoera soziolinguistikoaren berri ematea.

Euskara hizkuntza gutxitua izan arren, ume hauen *inputaren*² ehuneko handiena hizkuntza horretan da, esan bezala. Hala ere, Li30, bere inguru hurbilean euskara bakarrik

² Pertsona batek, hizkuntza bat ikasten ari delarik, entzuten edo jasotzen duen hizkuntza, bere jabekuntza-prozesuan eragiten duena. Guk hemen haurrak hizkuntza bakoitzean entzuten duen hizkuntza kantitateari deituko diogu *input*.

entzuten duen haurra, elebiduna da, gaztelaniaz ere ulertzen eta ekoizten du. Horrek esan nahi du, gazteleraren input minimo bat ere izan behar duela haur horrek bere inguruan.

Hurrengo azpiataletan emango diren datuak hizkuntzen erabilerari buruzkoak baino ez dira izango, ez ezagutzari buruzkoak, umeek erabileraren bidez jasotzen baitute hizkuntza. Gurasoek ezagutza izan arren, haurrekin erabiltzen ez badute ez du eraginik haurraren.

Beraz, ikus dezagun nola dagoen egoera soziolinguistikoa datuak jaso ditudan herrietan.

4.3.1. Gernika-Lumon

Ikerlan honetarako bildutako galdetegiaren artean Gernika-Lumoko eta Foruko haur banarenak daude. Hala ere, ondoz ondoko bi herri izanik, eta ume biak Gernikako eskolara joaten direla kontuan harturik, bertako datuak baino ez dira emango oraingo honetan.

Soziolinguistika klusterraren 2011ko datuen arabera, %48,9koa da Gernika-Lumon euskararen erabilera. Elkarrizketa gehienak, hortaz, euskaraz dira. Gainerakoak gaztelaniaz (%45,2) edo beste hizkuntza batzuetan (%5,9) izan ohi dira. Haurrak bakarrik daudenean %71,4 euskaraz egiten dute, helduak bakarrik daudenean, osteraz, %33,1, baina helduak haurrekin daudenean %61,7 da euskaraz ekoizten dutena (Soziolinguistika klusterra, 2012). Beraz, Gernika inguruan, ikusten den bezala, hizkuntza nagusia euskara izan arren, gaztelerak ere badu presentzia aipagarria.

4.3.2. Txorierrin

Eskualde hau Loiu, Sondika, Derio, Zamudio, Lezama eta Larrabetzuk osatzen dute, baina lehen herri horretako haurren daturik ez dut jaso. Horietaz gain, Mungiako haurren datuak ere jaso ditut. Bildutako galdetegi gehienak Zamudioko eskolako ikasleak diren umeenak dira. Gainera, Mungia Txorierra ez izan arren, alboko herria da eta nik jaso ditudan galdetegiaren umeak ere Zamudioko eskolako ikasleak dira. Beraz, Txorierriko egoera soziolinguistikoaren ikuspegi orokor bat da eskainiko dena ondorengo lerroetan.

Aikor! aldizkariaren datuetan oinarriturik, Txorierrin, orokorrean, elebidunen %43,4 errazago moldatzen da erdaraz hitz egiten, euskaraz baino; %37,9 bi hizkuntzetan moldatzen da berdintsu eta %18,7 euskaraz errazago aritzen da.

Herritarrei etxean darabilten hizkuntzari buruz galdetu zaienean, aldiz, ondokoak dira ateratzen diren emaitzak: herritarren %47,5 erdara hutsez aritzen da etxean; erdaraz euskaraz baino gehiago hitz egiten dutenak %24,4 dira. Euskaraz eta erdaraz, bi hizkuntzetan antzera hitz egiten dutenak %9,3 dira eta euskaraz gaztelaniaz baino gehiago hitz egiten dutenak, berriz, %8,3. Azkenik, etxean euskara hutsez mintzo direnak herritarren %10,6 dira (Aztiker, 2008).

Pentsa daiteke, hurrekin daudenean ere, herritarren, eta horiekin batera galdetegiak bete dituztenen, hizkuntzen erabilera ez dela datu horietatik gehiegi urrunduko.

5. Datuen azterketarako

Ikerlan honetan 11 umeren hiztegia izan da aztertu dena zeharkako azterketaren bidez. Hau da, denbora labur batez adin desberdinetako haurren datuak bildu eta horien konparaketa egin da. Horrela, umeen garapena ikusi ahal izango dugu denbora mugatu batez eta adin desberdinetako haur desberdinak erabiliz.

Euskarazko eta gaztelaniazko galdetegiak desberdinak izanik, bai kontzeptuetan, baita kopuruan ere, datu guztiak ehunekotan emango dira. Hau da, adibidez, D17k euskaraz *gauzen eta abereen hotsetako* 12 itemetik 3 esaten baditu eta gaztelaniazko *interjecciones y sonidos de animales*eko 19 itemetik 4, euskaraz %25 esaten du eta gaztelaniaz %21,05; beraz euskarazko ekoizpena, proportzioan, handiagoa da.

Berdin denborarekin ere: 2. atalean ere aipatu den moduan, hurrek hizkuntza bakoitza astean zenbat denboraz entzuten duten esaterakoan, gurasoen zenbakiak ez dira errealistak, asteak dauzkan baino ordu gehiago adierazi ohi dituzte eta ez dituzte kontuan hartzen lotarako orduak, umea kalean, lagunekin dagoen orduak... horren aurrean, hizkuntza bakoitza entzuten duten ordu kopurua ehunekotan eman da, beste hizkuntzarekiko proportzionala izan dadin. Alegia: U35ek, esaterako, gurasoen esanetan, astean 140 orduz

entzuten du gaztelera eta 125 euskara. Hiruko erregelaren bidez, ehuneko zenbat entzuten duen hizkuntza bakoitza jakin dezakegu.

Bi multzo nagusi egingo dira 11 hurreko lagin txiki hori banatzeko: 16-20 eta 29-30, U35 kanpoan geratzen delarik. Ondorioz, datuak ematerako orduan, bataz besteko zenbakiak dira erabiliko direnak, aipatutako U35 eta P30 izan ezik. Bigarren hau bigarren multzoko elebakar bakarra denez, bere horretan utziko dira bere datuak. Berdin U35ekin. Bataz besteko datuak *pertzentil*³etan kokatzeko adinaren bataz bestekoa ere egingo da eta bataz besteko horri dagokion adinaren arabera begiratuko dira pertzentilak.

6. Aurreikuspenak

Ondokoak dira nire azterketarako aurreikuspenak:

1. hipotesiari jarraituz, 1) ume hauen kasuan, euskarazko inputa gaztelaniazkoa baino altuagoa izanik, aurreikustekoa da, bai 16-30 hilabete arteko haurren multzoan, zein 29-30 artekoenean, euskaraz gaztelaniaz baino pertzentil altuagoan kokatzea haur hauek. Beste era batera esanda, inputa eta ekoizpenaren arteko erlazioari dagokionez, espero izatekoa da input gehiago jasotzen duen hizkuntza horretako ekoizpena handiagoa izatea.

2. hipotesiari jarraituz, pertzentilen atalean, orokorrean, hizkuntza bakarra kontuan hartzen dela ikusiz, 2) 16-20 hilabete arteko elebakarrak elebidunak, euskaraz, baino pertzentil altuagoan kokatzea espero da. Berdin 29-30 hilabete arteko hurrekin ere, hau da, elebakarrak elebidunak (euskaraz) baino pertzentil altuagon egotea aurreikusten da.

Hipotesi beraren barruan, beste aurreikuspen bat da, 3) bi hizkuntzetako hitzak eta kontzeptuak batera kontuan hartuz gero, elebidunek elebakarrek baino emaitza altuagoak lortzea, edo gutxienez beretsuak.

³ *Pertzentil*: estadistikan erabiltzen da eta joerak adierazteko eta lagin baten barruan dagoen aldagarritasunaren berri emateko balio du, datuak txikienetik handienara ordenatu eta gero. Gurasoek markatu dituzten hitzak zenbatu eta pertzentilen taulan begiratu, ikusiko dugu ehunera artean bere adinari dagokion zein pertzentiletan kokatzen den haurra. Pertzentil hori izango da bere adin bereko zenbat hurrek esaten dituzten, hizkuntza horretan, berak beste hitz edo gutxiago, ehunekotan.

3. hipotesiari jarraiki, 4) espero dugu guk aztergai ditugun haur elebidunek bi hitz izatea kontzeptu bakarrarentzako, bi hizkuntzetan.

Horietaz gain, bestelako nire aurreikuspenak dira honako hauek:

Lan honetan lexikoaz dihardugun heinean ikusi beharko genuke zeintzuk diren haur hauek gehien ekoizten dituzten hitz motak. 5) Nire aurreikuspena da gehien erabiliko dituzten hitzak maiztasun handiagoz erabiltzen direnak izango direla; horrez gain, ahoskatzeko errazak diren hots bilkurak ere gehiago erabiliko dira. Adibidez, hotsak edo pertsonak.

6) adizkiei dagokienean, hain haur txikiak izanik eta Barreña et al. (2008) eta López-Ornat et al. (2005) eskuliburuetakoko pertzentiletan oinarriturik, aurreikustekoa da gehienekoizpena zero izatea edo bertatik gehiegi ez aldentzea.

Azkenik, 7) esaldien konplexutasunari dagokionez, hemen ere aurreikusten da ume hauen esaldien konplexutasuna oso txikia izatea, askotan 0, batez ere, haur txikiengana.

7. Lexikoaren emaitzak

7.1. Kontzeptuak eta hitzak

Aurretik aipatu bezala, lan honetan haur elebidun eta elebazarren arteko konparaketa bat egingo da. Ikusi nahi dena da ea 3) aurreikuspena betetzen den; hau da, euskara-gaztelania elebidunak diren haurretan hizkuntza bakarra kontuan hartu beharrean, biak hartuz gero, ea umeak esaten dituen hitz kopurua elebazarrena bezalakoa den, eta berdin kontzeptuekin; gauza jakina baita ez dela berdin elebidunen hizkuntza bakarra ala biak batera aztertzea.

2. taula honetan hitz eta kontzeptu lexikoez jardungo dugu, eta beraz, euskarazko galdetegiko *Hitz zerrenda* zatiko 1-15 hitz multzoak eta gaztelaniazko *Vocabularioko* 1-13 multzoak baino ez ditugu aipatuko.

2. taula: Kontzeptuak eta hitzak			
		Kontzeptuak guztira	Hitzak guztira ⁴
Euskaldun elebakarrak	J16	4	4
	Ig I16	6	6
	La16	25	25
	Ig II18	14	14
	P30	409	409
Euskara-gaztelania elebidunak	D17	13	11+7=18
	H18	91	88+11=99
	A20	290	268+62=330
	Io29	567	447+370=817
	Li30	393	375+47=422
	U35	371	261+244=505

Euskarazko HITZAK bakarrik kontuan hartuz gero, 16-30 hilabete arteko ume elebarraren batz bestekoa 12,25 da eta multzo bereko elebidunena, aldiz, 122,33.

29-30 hilabete arteko multzoari begiratu bat emanez, ikusiko dugu elebakarrak 409 hitz esaten dituela eta elebidunen batz bestekoa 411 dela. Beraz, kasu honetan, oso antzeko dabilta biak, nahiz eta elebidunak izan hitz gehiago esaten dituztenak.

Azkenik, U35i begiratu gero, euskarazko hitz kopuruak behera egiten du eta elebarrarena baino baxuagoa da.

Datu hauek orokorki hartuta, badirudi elebidun/elebakartasunak ez duela eraginik umeak ekoizten dituen hitz kopuruan, zeren elebidunek hitz gehiago ekoizten dituzte elebarrarek baino, hizkuntza bakarra kontuan hartuta ere.

Haurren garapenean, hitzez gain, KONTZEPTUAK ere barneratzen dituzte. Kontzeptu bakoitzari hitz bat dagokio orokorrean. Baina, batzuetan, hizkuntza bat baino gehiagoz ari direnean jabetzen aldi berean, kontzeptu bakoitzari hitz bat baino gehiago eslehi dakioke.

⁴ Zutabe honetan dauden zenbakiak ondorengo esan nahi dute: lehen zenbakia euskarazko hitzak dira, bigarrena gaztelaniazkoak eta hirugarrena guztira zenbat hitz esaten dituen haurrak.

Euskararekin bakarrik jarraituz, ondorengo datuak ditugu: 16-30 hilabete arteko umeen multzoko elebarrak batz best 12,25 kontzeptu izendatzen dituzte eta elebidunek 131,33. 29-30 artekoen multzoan, berriz, 409 dira elebarrak esaten dituen kontzeptuak eta 480 elebidunek, batz best. Hemen ere, aurrekoan bezala, 16-20 hilabete arteko haurren multzoetan aldea handiagoa da elebidun eta elebarraren artean 29-30 hilabete arteko haurren multzoan baino eta kontzeptuen kantitatea askoz altuagoa da elebidunen artean, batez ere txikiengan.

Baina, ume hauen hizkuntza gaitasunaren irudi ahalik eta zehatzena egiteko, ikus ditzagun hurrengo datuak bi hizkuntzak batera aztertuz:

16-20 hilabeteko haur elebarraren batz besteko hitzen ekoizpena 12,25koa da eta elebarrak diren heinean, ekoizten dituzten kontzeptuen izenak ere, beste horrenbeste. Elebidunen kasuan, berriz, hiztegi itemak, batz best, 149 dira eta kontzeptuak 131,33. Elebidunak adinez elebarrak baino nagusiagoak direla kontuan hartu arren ere, bi talde hauen arteko aldea nabaria da.

29-30 hilabete arteko multzoan dagoen ume elebarrak, euskarazko galdetegiko 409 hitz lexiko ekoizten ditu 409 kontzeptu izendatzeko. Elebidunek aldiz, batz best, 619,5 hitz ekoizten dituzte 480 kontzeptu lexiko izendatzeko. U35ek, azkenik, 505 hitz ekoizten ditu bi hizkuntzetan batera eta 371 kontzeptu.

Ikusi dugun bezala, hitz kopuru osoa kontuan hartuz gero, argi dago elebidunen ekoizpena askoz altuagoa dela elebarrarena baino. Kontzeptuen kasuan ere elebidunek elebarrak baino kontzeptu gehiago ekoizten dituzte. Beraz, 3. aurreikuspena bete da.

Aurreikusi bezala, elebidunek kontzeptu batzuk izendatzeko bi hizkuntzetan dituzte hitzak. Gainera, adin bereko P30 eta Li30i begiratu gero, ikusiko dugu nola euskaraz elebidunak hitz gutxiago ezagutzen dituen elebarrak baino, baina kontzeptuak kontuan hartuta, elebidunak gehiago ekoizten ditu elebarrak baino, eta berdin bi hizkuntzetako hitz lexiko guztiak kontuan hartuz ere.

Hemendik ateratzen duguna da, 4) aurreikuspenean esan bezala, kontzeptu berarentzat izen bana dutela umeek hizkuntza banatan; esate baterako, A20k *caballo* eta *zaldia* biak

erabiltzen ditu “gauza” bera izendatzeko bi hizkuntzetan. Beraz, guk ere, Pérez-Pereirak (2008) bezala, pentsa genezake, ume hauek bi hizkuntzak bereizten dituztela. Hala ere, *arrainaren* kasuan, kontzeptua bera ezagutzen eta erabiltzen du baina hura izendatzeko hitza euskaraz bakarrik dauka. (ikus 3. eranskina)

7.2. Inputa eta ekoizpena

Atal hau haur elebidunen azterketari bakarrik dagokio, zeren eta elebatarrek, printzipioz, hizkuntza bakarra jasotzen dutenez, ekoizpena hizkuntza horretan izango da bete-betean. Beraz, elebidunen bi hizkuntzak hartuko dira kontuan zati honetan.

1) aurreikuspenaren haritik, esan da input gehiago jasotzen duen hizkuntza horretako ekoizpena handiagoa izango dela. Ikus dezagun nola betetzen den hori aztergai ditugun haurretan.

3. taula: Haurren inputa eta ekoizpena					
		Zenbat entzuten du hizkuntza bakoitza?		Haurraren ekoizpena euskaraz ⁵	Haurraren ekoizpena gaztelaniaz
		Euskera	Gaztelania		
Euskara-gaztelania elebidunak	D17	%50	%50	11/654-%1,68	7/588-%1,19
	H18	%70,59	%29,41	92/654-%14,07	10/588-%1,70
	A20	%74,26	%25,74	291/654-%44,5	70/588-%11,9
	Io29	%71,17	%28,83	474/654-%72,48	453/588-%77,04
	Li30	%100	0	412/654-%63	47/588-%7,99
	U35	%47,17	%52,83	284/654-%43,43	290/588-%49,32

3. taula horretan ikus daiteke, orokorrean, haur gehienek ekoizpenak hizkuntza bakoitzean bat egiten duela inputarekin. Esaterako, D17k, gehienek ez bezala, proportzio berean jasotzen ditu bi hizkuntzak eta ekoizpena berdin-berdina ez den arren oso antzekoa da bi hizkuntzetan, euskaraz gehiago ekoizten duelarik. Beraz, ekoizpenak inputarekin bat egiten duela esan daiteke.

⁵ Zutabeko zenbakiak ondorengoa esan nahi dute: markatutako item kopurua / item kopurua guztira - markatutako item kopurua ehunekotan Adibidez, *Hitz zerrendako* 654 hitzetik 6 esaten ditu J16k. Hori ehunekotan jarrita %0,92 da.

A20 dugu beste adibide bat: euskaraz gaztelaniaz baino gehiago jasotzen du eta bere ekoizpena altuagoa da lehen hizkuntza horretan. U35en kasuan, berriz, gaztelaniaz input gehiago dauka, baina oraingoan, bi hizkuntzen arteko aldea txikiagoa da. Ume honen ekoizpenak ere bat egiten du inputarekin; alde txikiarekin, gaztelaniaz ekoizten du gehiago.

Io29ren kasua bestelakoa da: alde handiarekin da euskara input gehiago daukan hizkuntza. Hala ere, ekoizpenari begira, gaztelaniazko ekoizpena altuagoa da euskarazkoa baino, diferentzia oso handia ez den arren.

Hala ere, Ig I16, P30 eta Li30, 7.1. atalean azaldu bezala, gurasoen irizpideetan oinarriturik, esan genezake hauen kasuan inputa eta ekoizpena ez datozela bat, zeren eta lehen bien kasuan inputa izan, baduten arren, ez dute ezer gaztelaniaz ekoizten eta azkenaren kasuan, gurasoek gaztelaniazko inputik ez duela dioten arren, haur horrek hizkuntza horretako ekoizpena ere badauka, nahiz eta oso altua ez izan.

Laburbilduz, 3. taulari begiratu gero, ikusiko dugu nola hurrek denbora gehiagorantz duten euskara eta ondorioz, beraien lexikoa gaztelaniaz baino zabalagoa den euskaraz. Horregatik da, ume hauen hizkuntza nagusia euskara eta horregatik lortzen dituzte emaitza altuagoak hizkuntza horretan. D17 eta U35 dira salbuespenak: lehenak bi hizkuntzak era beretsuan jasotzen ditu eta bigarrenak gaztelania da input gehiago daukan hizkuntza. Beraz, 1. aurreikuspena neurri batean baino ez da bete.

7.3. Gehien erabiltzen dituzten hitzak

Atal honetan ikusi nahi dena da ea zein hitz mota diren hurrek gehien erabiltzen dituztenak, baina ez maiztasunaren arabera. Baizik eta galdetegian agertzen diren hitzetatik zenbat esaten dituzten. Jakin nahi dena da, galdetegiko hitz multzoen artean ea zein motatako edo familiako kontzeptuak/hitzak dituzten haur hauek garatuago. Horretarako, lehenik eta behin ume guztiek erabiltzen dituzten hitz multzoak hartu dira eta gero, horien artean, hitz gehien dituztenak. Batzuetan, txikienek, ez dute multzo batzuetako hitz bakar bat ere esaten, baina hauek ere aipatu dira.

5) aurreikuspenaren arabera, hurrek gehien erabiltzen dituzten “hitzak” hotsak edo pertsonak bezalakoak izango dira. Ikus dezagun ea horrela den.

4. taula honetan ikus ditzakegu haurrek gehien ekoizten dituzten hitz multzoak, edo motak, euskaraz lehenengo, eta gaztelaniaz gero.

4. taula: Haurrek erabiltzen dituzten hitzak										
Euskaldun elebakarrak		Gauzen eta abereen hotsak ⁶	Interjecciones y sonidos de animales	Jokoak, jolasak eta egunerokoak	Juegos, rutinas y fórmulas sociales	Pertsonak	Personas	Jatekoak eta edatekoak	Alimentos y bebidas	
	J16	1/12- %8,33			0		3/28- %10,71		0	
	Ig I16	2/12- %16,67			0		4/28- %14,29		0	
	La16	3/12- %25			3/26- %11,54		4/28- %14,29		3/68- %4,41	
	Ig III18	4/12- %33,33			0		4/28- %14,29		1/68- %1,47	
	P30	11/12- %91,67			24/26- %92,31		20/28- %71,43		55/68- %80,88	
Euskara-gaztelania elebidunak	D17	3/12- %25	4/19- %21,05	4/26- %15,38	0	3/28- %10,71	3/22- %13,64	0	0	
	H18	8/12- %66,67	1/19-%5,26	11/26- %42,31	5/31- %16,13	10/28- %35,71	2/22- %9,09	14/68- %20,59	2/59- %3,39	
	A20	8/12- %66,67	12/19- %63,16	11/26- %42,31	8/31- %25,81	13/28- %46,43	7/22- %31,82	43/68- %63,24	11/59- %18,64	
	Io29	12/12- %100	13/19- %68,42	23/26- %88,46	19/31- %61,29	23/28- %82,14	11/22- %50	55/68- %80,88	52/59- %88,14	
	Li30	10/12- %83,33	19/19-%100	20/26- %76,92	3/31- %9,68	18/28- %64,29	2/22- %9,09	39/68- %57,35	6/59- %10,17	
	U35	8/12- %66,67	8/19- %42,11	12/26- %46,15	21/31- %67,74	11/28- %39,29	3/22- %13,64	46/68- %67,64	36/59- %61,02	

Taula horretan ikus dezakegunez, euskaraz, elebidun eta elebakarrek, biek gehien erabiltzen dituzten hitzak *pertsonak/personas* izendatzekoak eta *gauzen eta abereen hotsak/interjecciones y sonidos de animales* dira. Gehiago edo gutxiago, ume guztiak erabiltzen dituzte arlo semantiko horietako hitzen bat edo beste. Halaber, *jokoak, jolasak eta egunerokoak/juegos, rutinas y fórmulas sociales* izendatzeko erabiltzen dituzten hitzak ere ugari agertzen dira aztertutako haurrengan, hiru haurrek izan ezik (J16, Ig I16 eta Ig III1) beste guztiak baitute honetarako lexikoa.

⁶ Ikus 5. oin-oharra

Pertsonen kasuan, gazteleraz euskaraz baino gutxiago esaten dituzte, baina hori normala ere bada, zeren azken finean ez zaio pertsona berberari bi hizkuntzatan deituko, bi modutara, aita “aita” izango da euskaraz nahiz gaztelaniaz, ez zaio euskaraz hitz egiten duenean “aita” deituko eta gazteleraz ari denean “papá”.

Elebidunen kasuan ere bi hizkuntzetan gehien erabiltzen dituztenak *gauzen eta abereen hotsak/ interjecciones y sonidos de animales* eta *pertsonak* izendatzekoak dira. Baita *jokoak, jolasak eta egunerokoak/juegos, rutinas y fórmulas sociales* ere. Horietaz gain, gaztelaniaz, *jatekoak eta edatekoak* izendatzekoak ere asko erabiltzen dituzte, D17 salbuespena delarik, ez baitu galdetegiko multzo honetako hitz bakar bat ere esaten; euskaraz ere, haur berak izan ezik, beste guztiek daukate horretarako lexikoa.

Hala ere euskaraz lexikoa gaztelaniaz baino zabalagoa dute, askotan kontzeptuak izendatzeko euskaraz erabiltzen duten hitzak ez dauka gaztelaniazko baliokiderik. Esan daiteke euskara dela ume hauen hizkuntza nagusia. U35 da salbuespena, nahiko parekatuta baitaude bere kasuan bi hizkuntzak, eta bat izatekotan, gaztelania da nagusia.

7.4. Pertzentilak

Atal honetan ikusiko ditugun emaitzak pertzentilei dagozkienak dira, horrela, aztergai ditugun haur hauek beste haurrekiko lexikoa zenbat garatu duten ikusiko dugu.

Pertzentiletarako *Hitz zerrenda* azpiataleko 1-21 arteko hitz multzoak hartuko dira kontuan eta Barreña et al. (2008: 108)ko datuekin alderatuko dira euskarazkoak. Gaztelaniazkoak, berriz, *Producción de palabras* azpiataleko 1-20 arteko hitz multzoak kontuan hartuz, López Ornat et al. (2005: 146)eko datuekin alderatuko dira bertokoak.

5. taulan umeen inputa, ekoizpena eta, ekoizpen horren arabera, zein pertzentiletan kokatzen diren ikus dezakegu. Ekoizpenean, ehunekoak ez ezik, kopurua ere ematen da.

1. hipotesiari jarraiki eta kontuan izanda hizkuntza bat zenbat eta gehiago entzun orduan eta altuagoa izango dela hizkuntza horretako ekoizpena, gure lagineko haurren kasuan, elebidunak euskaraz gaztelaniaz baino pertzentil altuagoan kokatuko direla aurreikusi dugu.

Kontuan hartu behar da lanaren atal honetan umeak elebakarrak bailiran aztertzen ari garela eta beraz, aldea egon daitekeela elebidun eta elebakarren artean.

5. taula: Haurrak zein pertzentiletan kokatzen diren							
		Zenbat entzuten du hizkuntza bakoitza?		Pertzentilak euskaraz		Pertzentilak gaztelaniaz	
		Eusk.	Gazt.	Haurraren ekoizpena ⁷	Non kokatu	Haurraren ekoizpena	Non kokatu
Euskaldun elebakarrak	J16	%100	0	6/654-%0,92	80		
	Ig I16	%56,25	%43,75	6/654-%0,92	80		
	La16	%100	0	32/654-%4,89	85		
	Ig II18	%100	0	14/654-%2,14	30		
	P30	%76,49	%23,51	441/654-%67,43	45		
Euskara-gaztelania elebidunak	D17	%50	%50	11/654-%1,68	40	7/588-%1,19	5-
	H18	%70,59	%29,41	92/654-%14,07	80	10/588-%1,70	5-
	A20	%74,26	%25,74	291/654-%44,5	90	70/588-%11,9	35
	Io29	%71,17	%28,83	474/654-%72,48	65	453/588-%77,04	60
	Li30	%100	0	412/654-%63	40	47/588-%7,99	5-
	U35 ⁸	%47,17	%52,83	284/654-%43,43		290/588-%49,32	

Horrela, 5. taula horretan ikus dezakegu nola bai euskaldun elebakarrak, zein elebidunak beren adinetan dagokien pertzentilen barruan sartzen diren, batzuk pertzentil altuagoan, beste batzuk baxuagoan. Haur hauek normaltasunaren barruan daude, alegia 20-80 pertzentilen artean, eta batzuk oso goiko pertzentiletan (>80) elebakar zein elebidun izan, euskaraz. Erdaraz, berriz, salbuespen bakarrarekin, Io29, beheko pertzentiletan daude, batzuk berengoan. Gainera, ikus daitekeenez, elebidunen pertzentilak, nahiz ohikoak izan, elebakarrena baino baxuagoa da.

Bestela da elebidunen gaztelaniaren kasuan. Hauen ekoizpena batzuetan hain da txikia ze, pertzentiletan 5 baino gutxiago ematen duela, ikus D17, H18 eta Li30. Argi dago ume

⁷ Ikus 5. oin-oharra.

⁸ U35 35 hilabeteko haurra da eta galdetegia 30 hilabete arterainokoa da. Beraz, pertzentilen taulan ezin da haur hau kokatu, bertatik kanpo geratzen da. Horregatik dago hutsik pertzentilei dagokion bere kutxatila.

hauek ez direla elebidun orekatuak. Euskara da haur hauen hizkuntza nagusia. Gaztelaniaz daukaten inputa txikiagoa da euskaraz daukatena baino eta hori ekoizpenean islatzen da (ikus 7.2.). D17 eta Io29 dira salbuespenak: lehenaren kasuan, inputa berdina da bi hizkuntzetan baina ekoizpenean ez da hori islatzen. Bigarrenaren inputa, berriz, bi hizkuntzetan desorekatua izan arren, ekoizpenean nahiko orekatuta dago haurra; ez hori bakarrik, galdetegietako hitzen ekoizpenari begiratzuz gero, gaztelaniazko ekoizpena proportzioan altuagoa da.

U35i begiratzuz gero, adin txikiagokoena baino baxuagoa dela ikusiko dugu euskaraz ekoizten duen hitz kopurua, baina ez gaztelaniaz ekoizten duena. Haur honengan inputa eta ekoizpenak bat egiten dutela esan daiteke eta bai inputaren aldetik, baita ekoizpenaren aldetik ere, bere hizkuntza nagusia gaztelania dela. Pertzentilei dagokienean, ezin dugu esan zehazki zeinetan kokatzen den, taulak ez baitaude 35 hilabeterentzat prestatuak, baina bai esan genezake, euskaraz, 20 pertzentiletik behera egongo litzatekeela ziurrenik; gaztelaniaz, ostera, 25 pertzentiletatik behera. Beraz, aurreikusitako bezala, input gehiago daukan hizkuntzan, gaztelaniaz kasu honetan, pertzentil altuagoan kokatu da euskaraz baino.

Bi multzoetako batz besteko emaitzei begira, 16-20 hilabeteko haur elebidunen batz besteko hitz kopurua 131,33 da, %20,08 hain zuzen, 85 pertzentilen barruan eta 29-30 hilabete arteko haur elebidunek, berriz, 443 hitz ekoizten dituzte galdetegiko %67,74 eta 55 pertzentilen baitan sartuko genuke multzo hau. Beraz, hilabete batzuetan haur hauen hiztegia biderkatu egiten dela dirudi.

Gaztelaniaren kasuan, 16-20 hilabete arteko haur elebidunek, batz beste, 29 gaztelerazko hitz ekoizten dituzte, %4,93 eta 20 pertzentilen barruan kokatuko lirateke. 29-30 hilabete artekoak, berriz, 250 hitz ekoizten dituzte, batz beste, galdetegiaren %42,52, 25 pertzentilen barruan kokatuz.

Beraz, aurreikuspena bete da, alegia, input gehiago jaso duten hizkuntza horretan emaitza hobekak lortu dituzte, gehienek kasuan euskara dena. Bi hizkuntzetako emaitzen artean alde handia egon da, salbu Io29.

2. hipotesiari jarraiki eta kontuan izanda haur elebidunen hizkuntza bakarreko hitzak hizkuntza bereko elebakarrenarekin alderatuz gero, elebidunen hiztegia txikiagoa dela, gure lagineko haurren kasuan aurreikusi da elebakarrak elebidunak, euskaraz, baino pertzentil altuagoan kokatuko direla.

Adin multzoei begiratuz gero, 16-20 hilabete arteko haurren multzoan elebakarren batz besteko hitz kopurua 14,5 da, galdetegiko hiztegiaren %2,22, 80 pertzentilen barruan kokatuz. Multzo bereko elebidunei dagokienean, berriz, batz besteko hitz kopurua 131,33 da, %20,08 hain zuzen, 85 pertzentilen barruan.

29-30 hilabete artekoen multzoan elebakarra bakarra den heinean, goiko taulan ikus daitezke datuak: 441 hitz ekoizten ditu galdetegi horretatik, guztiaren %67,43, eta 45 pertzentilen barruan sartuko genuke. Elebidunei erreparatuz gero, aldiz, 443 hitz ekoizten dituzte batz beste, galdetegiko %67,74, 55 pertzentilen baitan.

Beraz, azpiatal honi dagokionean aurreikuspena ez da bete. Orokorrean, eta batz bestekoei begira, elebidunak elebakarrak baino pertzentil altuagoan kokatu dira.

8. Gramatikaren emaitzak

8.1. Pertzentilak

Orain arte lexikoaren arloan jardun dugu lan honetan, baina ikus dezagun nola moldatzen diren haurrok gramatikaren aldetik, ea nolako emaitzak ateratzen dituzten.

Atal honetarako, galdetegiko bigarren ataleko *Esaldiak eta gramatika/Gramática* deritzenak dira erabiliko direnak. Atal hauek *hitz amaierak/terminaciones de palabras, adizkiak/verbos difíciles, palabras sorprendentes, adibideak/combinaciones de palabras* eta *esaldien konplexutasuna/complejidad morfosintáctica* azpiatalez osatua daude.

Gramatikaren bi alderdi ikusiko ditugu hemen: *adizkiak/verbos difíciles* eta *esaldien konplexutasuna/complejidad morfosintáctica*. Bi hauek aztertzeke arrazoi nagusia da haurren galdetegietan, gaztelaniaz, gehien bete diren atalak direla, beste asko hutsik daudelarik.

Ezertan hasi aurretik, kontuan hartu beharko litzateke askotan gramatikaren atala bete gabe edo erdizka bakarrik beteta itzuli dutela gurasoek, eta beraz, J16, Ig II16, La16, Ig III18 eta P30, hau da elebakar guztiak, dira osorik beteta daudenak eta A20 eta U35 bakarrik elebidunen artean. Halaber, badaude batzuk, non euskarazkoa beteta dutenak baina ez gaztelaniazkoa, hauek D17, H18 eta Li30 elebidunak dira. Io29k bi galdetegiak ditu beteta, baina gaztelaniazkoa erdizka bakarrik. Hau bilketa prozesuko akatsa izan da.

Hala ere, esan bezala, gu bi sail horietara mugatuko gara eta hauek guztiek bete dituzte euskaraz, nahiz eta emaitza 0 izan, baina ez gaztelaniaz, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala.

6. taula: Gramatika									
		Adizk. ⁹	Esaldien konplexutasuna	Pertzentilak		Verbos difíciles	Complejidad morfosintáctica	Pertzentilak	
				Adizkiak	Esaldien konplexutasuna			Verbos difíciles	Complejidad morfosintáctica
Euskaldun elebakarrak	J16	0	0	99	99				
	Ig II16	0	0	99	99				
	La16	1/37- %2,7	2/37- %5,41	99+	99+				
	Ig III18	0	0	90	75				
	P30	4/37- %10,81	17/37- %45,95	30	35				
Euskara-gaztelania elebidunak	D17	0	0	90	80	-	-	-	-
	H18	2/37- %5,41	3/37- %8,11	95	90	-	-	-	-
	A20	4/37- %10,81	14/37- %37,84	95	95	0	23/102- %22,55	60	50
	Io29	2/37- %5,41	23/37- %62,16	25	70	-	87/102- %85,29	-	80
	Li30	3/37- %8,11	26/37- %70,27	25	60	-	-	-	-
	U35	10/37- %27,03	12/37- %32,43			4/19- %21,05	62/102- %60,78		

Betiere, ahaztu gabe pertzentilak aztertzerakoan umeak elebakarrak bailiran aztertzen ari garela eta honek ez duela errealitatearekin guztiz bat egiten.

8.1.1. *Adizkiak/verbos difíciles*

Eskuliburuetan (Barreña et al., 2008 eta López-Ornat, 2005) dauden pertzentilen taulak kontuan hartuta, 6) aurreikuspena da ume gehienek ekoizpena zero izatea edo bertatik gehiegi ez aldentzea.

6. taula horretan ikusten den bezala, haur hauen euskarazko adizkien ekoizpena oso txikia da. Barreña et al. (2008, 110)-eko *adizkien* azpiatalean agertzen diren pertzentilei begiratu gero, ikusiko dugu emaitza hauek normaltasunaren barruan sartzen direla, hots, ohiko emaitzak dira. La16 da salbuespena: bere kasuan, 16 hilabeterekin adizki bakar bat ere ez esatea da ohikoena, baina berak 1 esaten du, eta beraz, goreneko pertzentilean sartu dugu.

Io29, P30, Li30 pertzentil baxuetan leudeke, 25-30 artean, baina berriz ere, hau ohikoa da.

Gaztelaniazko ekoizpenaren kasuan, *verbos difíciles* deritzon azpiatala da aztertuko dena, López-Ornat et al.-en (2005, 152) lana erabiliz ume hauek pertzentiletan kokatzeko.

Kasu honetan A20 eta U35 baino ezingo ditugu ikusi. Lehenak ez du galdetegiko forma bakarra ere ekoizten eta beraz 60 pertzentilean kokatuko litzateke edo handik behera. U35, berriz, 35 hilabete dituenek, ezingo dugu inon kokatu, 20 pertzentiletik behera dagoela bakarrik esan daiteke.

Beraz, aurreikuspen hau bete da, esan bezala, haur gehienek ez dute adizkirik ekoizten eta ekoizten dituztenek ere oso gutxi.

8.1.2. *Esaldien konplexutasuna/complejidad morfosintáctica*

7) aurreikuspenari gagozkiolarik, hau da, ume hauen esaldiek oso konplexutasun txikia dutela, ondorengoak dira dauzkagun emaitzak:

⁹ Ikus 5. oin-oharra.

6. taulari erreparatuz, haur hauek ekoizten dituzten esaldien konplexutasuna txikia da, batez ere haur txikiarena. Barreña et al. (2008, 113)-eko *esaldien konplexutasunaren* azpiatalean agertzen diren pertzentilei begiratuz gero, ohiko emaitzak direla ikusiko dugu. Hala ere, aurrekoan bezala, La16 dugu salbuespena: bere kasuan, 16 hilabeterekin emaitzetan 0 ateratzea litzateke espero dena, baina ume honek 2 ateratzen du, eta beraz, goreneko pertzentilean dago, hemen ere.

Berriz ere, U35 ezin dugu taula horretan sartu, baina nonbait sartzekotan, ziurrenik, 30 pertzentiletik behera egongo litzateke.

Gaztelaniazkoari begiratuz gero, ikus daitekeenez, hiru bakarrik aipa daitezke, A20, Io29 eta U35. Hauen datuak *verbos difíciles* deritzon azpiataleko pertzentilekin alderatuko dira, López-Ornat et al.-en (2005, 158) lana erabiliz.

A20, gaztelaniaz, 50 pertzentilen barruan sartuko genuke; Io29, aldiz, 80 pertzentiletan. Azkenik, U35 50 pertzentiletik behera, seguruenik.

Beraz, aurreikuspen hau ez da hein handi batean bete, espero zena baino emaitza altuagoak lortu dituzte ume hauek eta txikiak bakarrik ibili dira zeroaren bueltan.

Laburbilduz, euskaraz, haur txikiak ez dute oraindik adizkirik ekoizten eta esaldien konplexutasuna ere oso txikia da, ohikoa den bezala, eta goiko pertzentiletan kokatzen dira. P30, berriz, beheko pertzentiletan dago gramatikaren bi alderdi horiei dagokienean. Elebidun nagusien esaldien konplexutasun mailan nahiko emaitza altuak lortu dituzten arren, oso adizki gutxi esaten dituzte. Gaztelarari dagokionez, A20 erdiko pertzentiletan dago, baina Io29k emaitza altuak lortu ditu esaldien konplexutasunean.

9. KGNZren mugak

KGNZ galdetegiak onura asko ditu: lehenik eta behin datu-bilketa ugaria egitea ahalbidetzen du denbora laburrean eta aldi berean. Gainera, datuok haur horiek inork baino hobeto ezagutzen dituen pertsonak biltzen ditu, jaiotzetik berarekin egon den pertsonak eta haurraren eboluzioa ezagutzen duenak, bere gurasoek, hain zuzen.

Hala ere, tresna guztiek bezala, bere mugak ditu. Lehena, gurasoengandik jaso dudana kexa nagusia da: galdetegia luzeegia da eta ikerlan honen kasuan, bi galdetegi bete behar izan dituzte; azkenerako nekatu egiten dira eta askotan, amaierako atalak bete gabe daude, nahiz eta egia den ezin dugula ziurtasunez esan bete gabe daudela eta ez ezer betetzekorik ez dutelako daudela hutsik; baina, azken orriko haurrari buruzko galderak bete gabe egoteak susmarazi digu bete gabe utzi dituztela.

Bigarren desabantaila da gurasoen irizpideetan oinarritzen den tresna dela eta horrelako egoeretan gertatzen den bezala, gurasoak ez dira objektiboak izan ohi, batzuetan zorrotzegiak dira eta bestetan malguegiak; beraz, KGNZ tresna horrelako egoerak ahalik eta gehien saihesteko prestatua egon arren, gurasoen irizpideen menpe geratzen gara.

Galdetegi honi aurkitu diodan azken arazoa-edo da gurasoek zerbait esaten dutenean ez dela zehaztasunik ematen edota azalpenik. Esaterako, 4.2. atalean azaldu ditudan Ig I16 eta P30 haurren gurasoek euskarazko galdetegia bete dute eta aitak gazteleraz egiten diela esan, baina gero gaztelerazko galdetegia hutsik itzuli didate “ez du gazteleraz hitz egiten” esanez, honek galdera nagusi bat sortzen digu: aitak gazteleraz hitz egiten dionean, euskaraz erantzuten dio? Ala isilik geratzen da? Beharbada, oso modu mugatuan, baina bada gai gazteleraz hitzen bat erantzuteko... Horrelako ñabarduren falta sumatu dut galdetegietan.

Beste adibide bat Li30 umearen kasua da: bere gurasoek diote haurrari euskaraz bakarrik hitz egiten zaiola, baina garbi dago haur honek gaztelania nonbaitetik jaso behar izan duela; beharbada galdetegian ingurune zabalagoa hartu beharko litzateke kontuan, etxekoen hizkuntza ohiturez gainerakoa, alegia.

Haur elebidunen hizkuntz garapena aztertzerakoan, bestelako muga batzuekin ere egin dut topo. Batetik, tresna honen bidez ezin dugu jakin umeei hitz bat erabiltzeko joera duten ala ez; tresna honek neurtzen duen bakarra da ea gurasoak hitz horiek beren haurren ahotan inoiz entzutea gogoan duten ala ez. Bestetik, nola jakin gurasoek hizkuntza batean betetzen dutena ez dagokiola beste hizkuntzari? Edota hizkuntza bietan hitz berdina erabiltzea, mailegutza onduz, zein punturaino azter liteke? Egoera horri aurre egin nahiez sortutako CDia da hasieran aipatutako O’Toole (2013) lanean aurkezten zaiguna. Euskara-

gaztelaniaz ere horrelako zerbaiten beharrea aurkitzen gara: KGNZ elebidun bat. Horrela, zehaztasun gehiagorekin jakin dezakegu haurrak zer eta zein hizkuntzatan esaten duen.

10. Ondorioak

Lan honetan 16-30 hilabete arteko bosna ume elebidun eta elebakarren lexikoa aztertu da, baita 35 hilabeteko haur elebidun batena ere. Horretarako, munduan hain erabilia den eta bere balioa argi frogatu duen CDI galdetegiak pasatu zaizkie haur horien gurasoei, bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz, zeharkako azterketa egin ahal izateko. Hau haurren hizkuntza- eta komunikazio-garapen goiztiarra neurtzeko gurasoen irizpideetan oinarritutako tresna bat da. Lana egiteko bigarren galdetegia da erabili dena, *Hitzak eta keinuak* eta *Primeras palabras y gestos* deritzenak, hain zuzen.

Umeak bi multzo nagusitan banatuak izan dira adinaren arabera eta hauen batz besteko datuak erabili ikerketarako. Horrela, ikerlan honetan egin diren aurreikuspenei eta emaitzei begira ondorengo ondorioak geratu zaizkigu:

Haur hauen kasuan, euskarazko inputa gaztelaniazkoa baino altuagoa izanik, bai 16-20, zein 29-30 hilabete arteko umeen multzoak, euskaraz gaztelaniaz baino pertzentil altuagoan daude. Io29 da salbuespena, bere kasuan bi hizkuntzetako ekoizpenak nahiko parekatuta daudelarik, nahiz eta inputa euskaraz gehiago izan. Beraz, 1. aurreikuspena hein handi batean bete da. Li30en kasua berezia da: berak hizkuntza bakarra, euskara, jasotzen du, baina ekoizpena bi hizkuntzetan egiten du, nahiz eta oso desorekatuta. 4.3. puntuari aipatutako gaztelaniazko ehuneko altuek azal dezakete, bi herrietan, haurrek inguru hurbilenetik kanpo jasotzen duten hizkuntza, eta beraz Li30 edo Io29 bezalako kasuak, non inputa eta ekoizpena ez datozen bat.

Bai 16-20, baita 29-30 hilabete arteko elebakarrak elebidunak, euskaraz, baino pertzentil altuagoan kokatzea espero zen, baina lehen multzoko elebakarrak elebidunak (euskaraz) baino pertzentil baxuagoan kokatu dira. Bigarren multzoko elebakarrak, aldiz, multzo bereko elebidunak (euskaraz) baino pertzentil altuagon egon, badaude, baina hau 30 hilabetekoen kasuan bakarrik betetzen da, ez 29koarenean, azken hau altuagoa baita. Beraz, 2. aurreikuspena ez da guztiz bete.

Bi hizkuntzetako hitzak eta kontzeptuak batera kontuan hartuz gero, elebidunek elebakarrek baino emaitza altuagoak lortuko dituztela aurreikusi da. Emaitzei begira, esan daiteke aldea dagoela kantitateari dagokionez ume elebidun eta elebakarren artean, lehenengoena delarik altuagoa. Hitzetan askoz altuagoa da elebidunen ekoizpena, kontzeptuetan, berriz, ez hainbeste nagusienetan, baina oraindik altuagoa izaten jarraitzen du. Beraz, 3. aurreikuspena ere bete da.

Guk aztergai ditugun haur elebidunek kontzeptu bakarrarentzako, bi hizkuntzetan hitz bana izatea aurreikusi da. Eta horrela izan da hein handi batean, 4. aurreikuspena bete delarik. Ume guztiek izan dituzte kontzeptu batzuentzako hitz bat baino gehiago, hau da, hitz bana hizkuntza banatan. Hala ere, gure lan honetan ez dugu kontuan hartu hizkuntza ukipena. Nahiz eta euskara eta gaztelania oso hizkuntza desberdinak izan, mailegatzearen ondorioz, espero daiteke bi hizkuntzen arteko nahasteak egotea, hitz bera baliatzea bi hizkuntzetan... baina azterketa honetan ez da hori neurtu, umeek bi hizkuntzak bereiz dituztelako hipotesitik abiatu baikara.

Gehien erabiltzen dituzten hitzak egunerokotasunetik hurbil geratzen zaizkienak eta ekoizteko sinpleagoak direnak izango zirela esan dugu, hau da maizen entzuten dituztenak. Beste batzuk ere asko erabiltzen dituzten arren, *hotsak* eta *pertsonak* dira haur guztiek salbuespenik gabe, gehiago edo gutxiago, erabiltzen dituzten “hitzak” hizkuntza bietan. Beraz, 5. aurreikuspena ere bete da.

Adizkiei dagokienean, hain haur txikiak izanik aurreikusi dena da gehienen ekoizpena zero izatea edo bertatik gehiegi ez aldentzea. Eta horrela izan da. Hala ere, kontuan hartu behar da, lehen hilabeteetan 0 dela emaitza ohikoena. Beraz, 6. aurreikuspena bete da.

Esaldien konplexutasunaz, aurreikusi da ume hauen esaldien konplexutasuna txikia izatea, baina ez da espero bezain txikia izan, nagusienetan emaitza nahiko altuak lortu dituzte. Beraz, 7. aurreikuspen hau ez da guztiz bete.

Ikerketa lan hau egiteko jaso dudan corpusa ez da izan egokiena, urria izateaz gain, zati batzuk bete gabe ere utzi dituzte gurasoek. Gainera, adinaren arabera antolatzeke ere arazoak izan ditut eta bi multzo nagusi egin behar izan ditut datuak orokorki emanez. Adin

tarte bakoitzean sartu diren haurrak ere ez dira izan adin berekoak edo baliokideak elebakar eta elebidunen artean, horrek dakartzan ondorioekin.

Hurrengo lanei begira, garrantzitsua iruditzen zait O'Toolek (2013) proposatutako KGNZ elebidun bat garatzea, horrela datuak zehaztasun gehiagorekin landu ahal izateko.

11. Erreferentzia bibliografikoak

Aztiker (2008), *Aikor! aldizkaria: irakurleak eta iritziak. Txorierrri, 2008 -ikerketaren emaitzen txostena-* http://www.aikor.com/uploads/fitxategiak/inkestaren_emaitzak.pdf

Barreña, Andoni, Iñaki García, Mari Jose Ezeizabarrena, Margareta Almgren, Nekane Arratibel, Idoia Olano, Julia Barnes, Alazne Petuya, Amaia Colina (2008), *MacArthur-Bates Komunikazio Garapena Neurtzeko Zerrenda*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.

López-Ornat, Susana, Carlos Gallego, Pilar Gallo, Alexandra Karousou, Sonia Mariscal, María Martínez (2005), *MacArthur: Inventario de Desarrollo Comunicativo MacArthur*. Madrid: TEA Ediciones.

O'Toole, Ciara (2013), "Using Parent Report to Assess Bilingual Vocabulary Acquisition: A Model from Irish". In Virginia C. Mueller Gathercole (arg.), *Solutions for the assessment of bilinguals*. Bristol: Multilingual Matters.

Pearson, Barbara Z., Sylvia C. Fernández, Vanessa Lewedeg, D. Kimbrough Oller (1997) "The relation of input factors to lexical learning by bilingual infants". *Applied Psycholinguistics* 18, 41-58.

Pérez-Pereira, Miguel (2008), "Early Galician/Spanish Bilingualism: Contrasts with Monolingualism". In Pérez-Vidal et al. (arg.) *A Portrait of the Young in the New Multilingual Spain*. Clevedon: Multilingual Matters, 39-62.

Soziolinguistika klusterra (2012), *Gernika-Lumoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2011* –emaitzen txostena– <http://www.gernika-lumo->

euskaraz.eus/fitxategiak/fckeditor/file/GERNIKA%202011%20TXOSTENA-zuzena.pdf

12. Eranskinak